

Balorezko Proposamena

Gure aplikazioa modarekin erlazionatuta dago. Jendeak modarekiko edota arropa erostearekiko beharrak asetzen ditu, horrez gain, egin beharreko prozesua errazten du. Geure aplikazioan, tokiko arropa denda guztiak ikusteko abagunea dago, horretaz gain, haien kokapena, deskontuak eta webgunea ikusi ahal da soilik gure aplikazioan sartzen. Horrela, bezeroak ez du webgune guztietan sartu beharko.

Lehiakideetatik desberdintzen gaituena da; orain arte, ez zegoen hainbeste denda denbora berean ikusteko aplikaziorik, berriz, webgune guztiak ireki behar zenituen bakoitza ikusteko. Gure aplikaziotik guztietara sartu ahal zara eta bakoitzak eskaintzen dituen deskontu edo ofertak ikusteko, baita bazkide-txartela online egiteko gai zara. Are gehiago, denda bakoitzaren kokapena eta hartara nola heldu ikusi ahal da. Bestalde, produktu jakin bat bilatu nahi bada, hori eskaneatu eta argazkira egokitzen diren artikulua guztiak agertuko dira, baita kapaz izango zara momentuan *trendy* den arropa ikusteko. Azkenik, gure webgunetik erosteagatik, deskontu berezi bat jasoko da denda guztietan.